



Oria eta Urumea, sagardoaren ibaiak

BI IBAIEN INGURUKO ERAKUSKETA IBILTARIA
JARRIKO DUTE MARTXAN APIRILEAN HERNANIN,
USURBILEN, ASTIGARRAGAN ETA DONOSTIAN


Sagardoetxea museoak 'Sagardo ibaiak, bizitza iturri' proiektua garatu du, 'Herri baten erroak' kontzeptuaren baitan, Gipuzkoako Oria eta Urumea ibaietan jazo-tako istorioak ezagutzera emateko eta eskualdearen garapenean izan duten garrantzia nabarmentzeko. Ikerketa horren harira, apirilean eskualdeko bi ibaien inguruko erakusketa ibiltaria jarriko dute martxan Hernani, Usurbil, Astigarraga eta Donostia udalerrietan.

Museoak berak proiektua garatzeko egin-dako azterlanaren arabera, Gipuzkoako Urumea eta Oria ibaiak, eskualdeko garrantzi-tsuenak, sagardoaren inguruko gauza ugari konta dezakete, berebiziko garrantzia izan baitute herrien arteko komunikazioa eta bailara horietako harreman ekonomikoak eta sozialak errazten. Hori dela eta, bi ibaiak Gipuzkoako garapen historikoan oinarrit-koak izan direla esan daiteke.

Garai batean, Urumea eta Oria aberas-garritasun iturri izan ziren bertakoentzat.

Historian zehar puntako teknologiaren eta istorio askoren lekuko izan dira: XVIII. mende-ko langileen greba, Ergobiko ordainleku-ko tasa, Astigarragako alkate barberua eta Mungia Jaunen haserrearen ezagutu zituzten, baita sagardoa itsaso eta portuei lotutako lanpostuen soldataren parte zeneko garaia ere. Garai bateko kontakizun interesgarriak dira, Gipuzkoako alor turistikoak sustatu eta indartzeko baliagarriak izan daitezkeenak.

Museoak urteak daramatza sagarraren eta sagardoaren kulturaren errealitatea eza-gutzero emateko egitasmoak eta azterlan historiko eta etnologikoak garatzen. Horien artean topa daitezke: 'Sagardoa eta itsasoa', 'Santigomendiko Sagardo Bidea', 'Sagardoa eta baserriak', Vicente Laffitte, Astigarraga-ko Etxabe familia, Mungiako Etxea eta Valde-Espina Markesak, eta Astigarragako baserriak. 'Sagardo ibaiak, bizitza iturri' proiektua Sagardoetxea museoak sustatu duen arren, Astigarragako, Hernaniko eta Usurbilgo Udalen laguntza izan du, baita Donostiako Aquariumarena ere.



Sagardoa, Urumean barrena
Donostia Kultur Hiriburutza proiektuaren barruan dagoen
'Sagardoaren ibaiak' ekimenak sagardoarekin loturiko usadio
zahar bat berreskuratu nahi du

Petritegi eta Lizeaga sagardotegiak, 'Sagardoaren ibaiak' ekimenaren bidez, garai batean Astigarragatik Donostiara, Urumea ibaian barrena, sagardoa garraia-tzeko modua ekarri zuten gogora joan den abenduaren bukaeran. Ekimena gauzatzeko Albalola Itsas Kultur Erakundearen laguntza izan zuten, haiek eraiki baitzu-ten espresuki egun horretarako 'Ala' ontzia; Urumea ibaian zehar sagardoa garraiatzeko erabiltzen zen gaba-rra antzeko txalupa, alegia.

Jarduera Donostia Kultur Hiriburutza proiektuaren barruan dago, eta asmoa sagardoarekin loturiko usa-dio zahar bat berreskuratzea eta jendeari eskaintzea

da. Edaria urte askotan batetik bestera eramateko erabili den garraiobide horri esker, sagardogileek zor-tzi barrika sagardo helarazi zituzten hirigunera; eta horrela, jendeak aurtengo uztatik ateratako muztioa dastatu eta esperientzia historiko bat izateko aukera izan zuen.

Duela ez hainbeste urte, sagardotegietan ekoiztuta-ko produktua Donostiako portura edo hiriko sagar-dotegietara iristeko era bakarra 'Ala' ontzia gisako txalupen bidez zen, bertako tabernetan edo sagardo-tegietan kontsumitu edo itsasora eramateko aukera ematen baitzuten. Egund, antolatzaileek eskaintza turis-

tikorako aberasgarria izan daitekeen proiektua dela diote. Alde batetik, historiaren zati bat agerian uzten duelako, eta bestetik, hiriko ibaiak duen garrantzia gogora ekartzen duelako.

Hori guztia dela eta, antolatzaileek argi dute Kultur Hiriburutzaren parte izan den ekimena izateaz gain, jendeari esperientzia berri bat bizitzeko aukera ema-teko horrelako ekimenak gehiagotan gauzatu nahi dituztela. Hortaz, proiektua etorkizunera begira berri-ro egiteko asmoa badagoela ziurtatu dute, bertako his-toria bereganatu eta jendeari sagardoarekin gozatzeko aukera gehiago eman ahal izateko.

GURUTZETA SAGARDOTEGIA

Abierto todos los días de lunes a sábado
Mediodía y noche
Domingos cerrado
Lunes, martes y jueves noche: menú 22€
Miércoles: Obxote

Cazuelas
de Bacalao
bajo reserva

Oialume Bidea, 63 - Astigarraga (entrada por el Bº de Ergobia) T. 943 55 22 42 www.gurutzeta.com

